


BERRIGARA


23 zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1991, maiatzak 31



**EAJ
garaile
Udalerako**



**Batzar Nagusietan
HB irabazle**



**Piszinak:
Noiz arte egongo
dira obretan?**




**Udaberriko
kontzertua,
Igandean**



**Futbitoa:
Asteburuan
Txapelketaren azken
txanpa**

TXISTE TXAPELKETA

**Arrasaten
Amaia Antzokian
10.30etan.**



**INFORMA ZAITEZ:
Udako ikastaro intentsiboak
ARRASATEN.**

Udako barnetegiak -Maila guztiak-

Sarrerak: aurrez 300 pzta. eta takillan 350 pzta.

Tfnoa: 79 71 12, 77 03 69

ASKASIBAR
JATETXEA

Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

ARGAZKI

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE



JOSE ANGEL ARRIARAN INZA

Aurreko GALDE DEBALDEKO erantzun zuzena SAGASTA baserria eta IBAIZABAL-NERBIOI ibaia genuen.

HERRAN dendako SARIA Jose Angel Arriaranek irabazi du. Argazkia honetan ikusten dugu gure saritua HERRAN DENDAN saria jasotzen.

**ZORIONAK irabazleari!
Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste hontako galderari!**

HERRAN
ETXEA

Elektragailuak
T.B. - Bideoak - HI FI
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3 Tfnoa: 76 12 22 BERGARA

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Tfona: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Jon Andueza. Eneko Azkarate

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitate eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elxepuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkoroberezibar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikufia

Argazki laborategia: A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,
J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta
Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta erit-
zuen erantzunkizunik.



31 OSTIRALA

- Zinea: "Cyano de Bergerac", 10.30etan.
- Kontzertuak:
- Txibiston Lapolla Records, 11etan.
- Toki Ederreko Jaiak:
- 19etan Txupinazioa, jaien hasiera.
- 19.30etan Erraldoi eta Buruhandiak.
- 21.30etan Su-metia.
- 23etan Dantzaldia Korkoila taldearekin.
- Goardiako farmazia: Egunez:Guallar (San Anton) Gaeuz:Irizar (Arrasaten)

1 LARUNBATA

- Zinea: "Cyano de Bergerac", 5 eta 7.30etan eta 10.30etan.
- Pilota partiduak: Frontoian, 4.30etan hasita, neurketa hauek ikuteko aukera: Soroa-Iturza Arteaga-Aldazabal I

Etxaniz -Galarza
Retegi II-Errasti

eta Irazola-Buenetxea
Gabilondo-Unsain.

- Kontzertuak:
- Txibiston, Sepultura, Sacred Reich eta Heathen. ; 11etan.
- Antzuolako Gaztetxean Quatro Clavos eta Setencia. 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Estella (Matxiategin)

2 IGANDEA

- Zinea: "Cyano de Bergerac", 5, 7.30 eta 10.15etan.
- Udaberriko kontzertua:
- 9.30etan kalejira gazteen bandarekin.
- 12.etan kontzertua Herriko Pilotalekuan.
- 2etan poteo musikala.
- 2.30etan bazkari herrikoia Espaloian.
- 5etan dantzaldia Ibaiki taldearekin.
- Goardiako farmazia: Estella (Matxiategin)

3 ASTELEHENA

- Zinea: "Cyano de Bergerac", 7.30.
- Ikastaroak: Sexualitate ikastaroa Kultur Etxean 4.30 etatik 6.30etara. Gaiak: Gure gorputza; Menopausia eta sexualitatea; Bikoteen arteko harremanak; Maitasuna eta sexua; eta azkenik, Sexualitatea eta hirugarren adina.
- Goardiako farmazia: Mozos (San Pedron).

4 ASTEARTEA

- Goardiako farmazia: Camacho (Oxirondo plaza)

5 ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Puy (Barrenkale)

6 OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Guallar (San Antonion)

Aukeran...

- Toki Ederreko jaiak:

Ostiralean hasi, eta igande arratsaldera arte.

- Udaberriko Kontzertua: Igande eguerdian, pilotalekuan.

- Cyano de Bergerac: Gerard Depardieu aktore ezagunaren filmrea, Novedadesen.

Bergaratar adiskide:

Azken hauteskundeetan zure konfidantza eta botoa EAri eman diozun horri, mila esker. Nere aldetik agintzen dizut eginahalak egingo ditudala gure udal egitaraua betetzen eta bete arazten.

J.M. GARITANO

EAKo alkategaia



ANTIA HARATEGIA
URDAITEGIA

TXAHAL, IDI, TXERRI
BILDOTS, UNTXI
BASERRIKO OILASKOAK

MATXIATEGI Tfnoa: 76 15 09 BERGARA

**Aldoka
Maldoka**

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA

**BRIKOLAIA
AUTOMOZIOA**

Turismoak, kamioiak, etab.

Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA

LXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6 Tfnoa: 76 51 62
BERGARA



Jaiak amaitu dira eta...

Bergarako jaiak orain dela aste ta piku amaitu ziren, baina oraindik hainbat leku jaso eta garbitu gabe daude. Adibidez, txoznak eta barrakak egon ziren lekuak, Eroski pareko aparkalekua eta Beheko Estaziñoko aparkalekua.

Lehenengo kasuan, Eroski parean, oholak eta zikinkeria mordoa ikus daitezke, eta ondorioz, kotxeak edonola aparkatuta.

Bigarren kasuan, Beheko Estaziñoko aparkalekua, dena paperez eta kartoiez beterik dago.

Ados jaiak jaiak direla; ondo iruditzen zait gainera egun batzutan zehar bergararrok *desmadratzeko* aukera edukitzea. Baina festak pasa eta gero ezin al daitezke gauza guzti hauek lehen bait lehen jaso eta lekua utzi kotxeak behar bezala aparkatzeko?

Dagokionak har beza ardura!

M.A.K.

Ezin eguzkia hartu

Bergarako beste emakume askok bezala, arratsaldeak libre izaten ditut. Eguraldi ona heltzerakoan, betiko ohitura izan dugu eguzkia piszinako berdegunean hartzea. Aurten, ordea, obrak direla eta, ezinezkoa zaigu bertara joatea. Nire proposamena zera litzateke: piszinako lanak bukatu bitartean, ez al da posible beste tokiren bat egokitzea?

Pilar



• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82
Larrialdiak 76 12 94
Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59
Gipuzkoako anbulan. 45 87 44

• SUHILTZAILEAK

Zubillagan 78 28 00

• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69
Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A. 76 16 46
Taxiak 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde 76 13 68
Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42
Epaitegia 76 14 72
Kiroldegia 76 56 41
Igerilekuak 76 20 51
Kultur Etxea 76 44 46
IMI 76 55 49

Tiira ba!

Josu Okina





Rufina Olasagasti lanean

Maiatzak 16an, jaien bezperan, ekin zion lanari Rufina Olasagastik, Bergarako Kultur gestoreak. Lanpostu berrian, dagoeneko bi aste bete dituenean, Kultura arduraduna, Errotalde Jauregian kokatu eta herriko talde kultural ezberdinekin harremanetan jarri da. Behin herriak kultura mailan duen dinamismoa ezagutu eta gero, liburutegia hobetu eta seminarioko museoa bultzatzeko asmoak agertu ditu. Bergarako elkarte kulturaleri ez dio uko egingo eta ahal duen neurrian laguntza eskaintzeaz gain, zenbait arlotan egon daitezkeen hutsuneak betetzen saiatuko da; izango du egin beharrik Arrasaten bizi den elduaiendar honek...



Nissan'autoetxe berria

Andoni Zubizarreta Bergaran izan genuen joan den astelehenean, Nissan autoetxeak gure herrian jarri berri duen kontzesionarioaren inaugurazio ekitaldian. Hirurehun lagun inguru bildu ziren autoetxe japoniarrak Amilaga kaleko 5.ean duen erakustokian, tartean, argazkian Andonirekin ikusten ditugun haurrak.

Andoni Zubizarreta, Jabier Murua Gorosabel, enpresako gerente legazpiarra, eta Anboto inmobiliaria dira Zubi-Motoreko jabeak. Donostiako biak kenduta, hau da Nissan-ek, Gipuzkoan duen kontzesionario bakarra. Bederatzi lagun ari dira lanean, Santalaitz kaleko tailerrean eta Amillagako erakusketan.



Udaltzain eta administrariak

Udaltzain eta Udal administrari lanpostuetarako frogak izan dira aste honetan. Udaltzain posturako euskara froga gainditu ondoren, bederatzi lagun jardun zuten ariketa fisikotan, Agrosingo atletismo pistan. Lau pasatu ziren hurrengo frogara (trafikoari buruzko jakinduria, kultura maila eta test psikoteknikoa neurtzen dituena), hauen artean bi bergarar. Datorren astean ezagutuko dugu, udaltzain berriaren izena. Udal administrari posturako, bestalde, 32 aurkeztu ziren euskarako frogara. Lehenengo traba gainditu zuten 21ak, astezkenean egin zuten mekanografia frogara. Hauetatik, 6k jarraitu zuten aurrera eta ariketa teorikoa ostiralean egin dute. Astelehenerako lanpostua nork lortu duen jakingo dugu.

☐ Txiste txapelketa

AEKk antolatuta, larunbatean Deba Garaiko III. Txiste txapelketa antolatuko da Arrasaten, Amaia antzokian. Gaueko 10.30etan hasiko da. Sarrerak 300 pzta. balio du.

☐ 1945eko kintoak

Ekainaren 15ean, Txarran-txa jatetxean 1945eko kintoek bazkaria izango dute. Interesatuak jubilatuen egoitzan eman diezaiokete izena Angel Aperribairi.

☐ Jose Luis Loidi

Jose Luis Loidi, "Rosli", bukatu berri den legealdian HBko zinegotzia izan dena, gose greban aurkitzen da beste 14 presorekin batera Carabanchelgo espetxean. Preso bezala dagozkien eskubideak errespetatu diezaieten, protestatzen dute.

☐ DYAk diru bilketa

Deba garaiko DYAk adierazi digunez, elkartearen aldeko diru bilketa egingo da asteburu honetan.

HALTZARI
FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK
BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

KAFETEGIA
INTXORTA
C
BAYONETA, 34
Tel. 762276
BERGARA

KABIA
Erretegia -taberna
Zubiaurre 23 - Tfnoa: 76 23 08
BERGARA



Piszinak ankaz-gora

Ekainaren 26an, lanak bide onetik baldin badoaz, zabalduko dira aurten, kanpoko igerilekuak.

Gregorio Iruretagoiena igerilekuetako arduradunak jakinerazi zigunez, "beste urteetan ekainaren erdialderako irekitzen badira ere, aurten astebate berandutuko gara, obren atzerapena dela medio".

Gogoratuko duzuenez, Osakidetzak, 1988an, igerilekuetako uren tratamenduari buruzko araudi berria indarrean jarri zuenetik, Beragarako piszinetan derrigorrezko berrikuntzak egitera beharturik aurkitu dira. Duela gutxirarte, arrazoi ezberdinengatik, lanak ez dira hasi, eta udara gainera etorri zaigunean, igerilekuaren egoera ikustean, herritarrak kezkatzen hasi dira: "Kontutan izan joan den astera arte, azken hilabeteetan, euria gelditu gabe egin duela; honek lanak atzeratu egin ditu, kamioiek ez bait zeukaten piszinetan sartzerik. Euririk egin izan ez balu, seguruenik obrak bukatuta egongo lirateke".

Burutzen ari diren lanen artean, hauek aipatu daitezke: piszina bakoitza bere aldetik garbitzeko hiru depuradora berri jarri eta oinak garbitzeko erabiltzen den kanaltxoaz ezabatuz, honen ordeaz, alde bakoitzean derrigorrezko bi pasabide eraiki (bakoitzean dutxa banarekin).

Horiez gain, igerilekua eta saihebidearen artean geratzen den ingurua, eguzkia hartzeko berdegune bihurtuko da. Eguzkia aipatu dugunez, esan, herritar askok piszinetako zelaietara sartzeko baimena eskatu duela, bainatzerik ez badago ere, behintzat, moreno jartzeko aukerarik izan dezaten. Eskakizun hauei erantzuteko, eguraldi onak jarraitzen badu, astelehen honetan, instituto parean dagoen zelaia egokituko da, igerilekuetako bazkide den edonork bertara sartzeko aukera izan dezan.

Txibisto jo ta fuego

Sekulako arrakasta lortu zuen *Saxon* eta *Lisa Dominique* britainiarrek joan den astean Txibiston emandako kontzertuak. Goiko puntaraino bete zen dantzalekua.

Asteburu honetarako ere, dena den, izugarritzko karteldegia iragarri digute San Juangoek. Hasteko, ostiralean, Aguraingo *La Polla Records* taldekoek, bere azken diskoa *Los Jubilados* aurkeztuko digute. Larunbatean, berriz, *Sepultura*, *Sacred Reich* eta *Heathen* taldeak hurbilduko zaizkigu; metal gau gogorra pasatzeko aukera bikaina!



Legeldiko azken plenoa

Astelehenean egin zen amaitu berri den legealdiko azken ezohizko plenoa. Zinegotzi guztiak bat etorri ziren aztertutako gaietan. Udalak mendiko motorrekin herriko zelaietan ibiltzea debekatzea erabaki zuen, Diputazioak araudi berria indarrean jarri arte.

Bestalde, Maltzaga-Gasteiz arteko komunikabideak hobetzeko Deba Garaiko eta Beheko mankomunitateek Madrileko Gobernuari egindako eskakizuna onartu zen EAJren abstentzioarekin eta gainerako partidu guztien baieztokarekin. Imanol Bolinaga, EAJko bozeramaileak adierazi zuen, Mankomunitateen proiektua ondo egonda ere, ez zela komenigarria Maltzaga-Armiñon autopistaren bidea baztertea.

Udaleko langileen soldata ehuneko 7,7 igotzea onartu zuten, baita ere, zinegotzi guztiak.

Aipatu, azkenik, Jose Luis Elkoro Alkateak, plenoari hasiera eman baino lehen, amaitu den legealdian zinegotzi izan direnei eta Udaleko langileei urte hauetan egindako lanagatik eskerrak eman zizkiela.

Imanol Bolinagak, bere aldetik, igandeko bozketan izandako partehartzeaeta normaltasuna goraipatu zituen.

ERREKI

ERRETEGIA

Txitxarro eta saiheski jana
astebukaeretan

Fraskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

DIEGO VALOR



Ileapaindegi mistoa

✓ Estetiziena

Tfnoa: 76 37 70 Zubieta 38 behea

IGARZA

Merzeria Lenzeria

Udarako bainujantziak

Irala5 Tfnoa 76 24 88

1950eko kintoak

1929an jaioetako bergarrek (1950.eko kintoek), anai arteko eguna ospatuko dute ekainaren 9an eguerdiko 2.30etan, Lasa jatetxean. Aurretik meza izango dute hildako lagunen alde, San Pedro parrokian eguerdiko 12.30etan. Izenak emateko telefono hauetara deitu beharko da: 764480 (Jose Mari Unamuno), 764779 (Jesús Oroiz), 761947 (Jose Luis Capanaga) edo 761922 (José Manso).

Dantzari eguna

Ekainaren 23an ospatuko den Dantzari Egunean haurrak etxean hartu nahi duenak, deitu Aranzadi ikastolara (762676) hilaren 7a baino lehen.



Toki Ederreko jaixak

Txupinazoa jaurtirik emango zaie hasiera ostiralean asteburu osoan ospatuko diren Toki Ederreko jaiei. Erraldoi eta buruhaundiak auzoan zehar ibili ondoren, gaueko 11etan,

Korkoil taldeak alaitutako dantzaldia egongo da, nahi dutenek, berakatz-sopak hartzeko aukera izango dutelarik. Larunbaterako eta iganderako ere ospakizun ugari antolatu dira. Larunbatean, goizeko 11etan, gazteentzako Mendiko bizikleten probari emango zaio hasiera. Ondoren, eguerdiko ordubatean, Saku lasterketa jokatu da. Arratsaldeko 4retan, Toki Ederreko I. Mus Txapelketa jokatu da eta 5etarako Kukainak iragarri dira. Hauen amaieran, neska-mutikoei merienda eskainiko zaie. Arratsaldeko 8etan, Haur

Tanborrada izango da. Eta gauerako, Suzko erruberak 10,30etan, eta ondoren, *Berakatz Band* taldearekin dantzaldia.

Udal Txistulari taldearen dianak esnatuko ditu igandean, auzokideak. Goizeko 11etan, *Aritzeta* abestutako Herri Meza izango da. Eguerdiko 12etan, auzoko jubilatuentzat Luncha

Aize-pe elkartean, eta jaiei amaiera emateko Txupinazoa jaurtiko da arratsaldeko 14etan. Aukera ederra, beraz, Toki Ederren, asteburu primeran igarotzeko.

Asteko berriak / 7



Batzar Orokorra Jubilatuetan

Joan den asteartean ohizko Batzar Orokorra egin zuten Bergarako jubilatuen egoitzan. Laurogei bat lagunen artean, Carlos Gutierrez presidenteak; Angel Aperribay, presidente ordeak, eta Ignacio Belastegi, egoitzako zuzendariak, iaz egindakoaren balantzea ezagutzera eman zuten. Aztertu ziren gaien artean, bazkideen diru kontuen egoera, 1990eko gastuen (9 milioi inguru) banaketa, eta osasun eta gizarte sailaren txostena azpimarratu daitezke. Horiez gain, egoitzako langileen egoeraz ere hitz egin zen, gizarte laguntzaile baten kontratazioa iragarri zelarik. Bestalde, liburutegi zerbitzua lehen bait lehen martxan jartzeko asmoa agertu zuten Batzarburuek. Carlos Gutierrez presidenteak, azkenik, Gobernu Batzordea berritzeko bozketak, laister konbokatuko zirela iragarri zuten.

Udaberriko kontzertua igandean

Igandean jai egun handia ospatuko dute Musika Eskolako ikasle eta irakasleek. Goizeko 9.30etan ekingo diote Gazteen Bandaren kalejirarekin. Eguerdiko 12etan Herriko Pilotalekuan kontzertua eskeiniko dute Angel Agirianok zuzentzen duen *Gazteen Bandak*, Cristina Larrañagaren *Tipleen Abesbatzak*, Alberto Laskurainen *Akordeioen Orkestak* eta Alfredo González Chirlaquek zuzentzen duen *Orkestra Sinfonikoak*. Amaitu bezain laster, arratsaldeko ordubietan, poteo musikala. Ondoren, 2.30etan, Espaloian herribazkaria egingo da. Bazkalostean, dantzaldia, *Ibaiak* taldearekin

TOKI-EDER


Taberna
Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 7651 84 BERGARA

Kabia


Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE




HAUTESKUNDEAK BERGARAN

Emaitza orokorrak



Zinegotzi banaketa



✓ Udaletxerako EAJ garaile

Igandean Udaletxeko konposaketa berria erabakitzeko egindako bozketan, EAJ izan dugu garaile, 2.779 herritarren botua jaso eta gero. Zazpi zinegotzi eskuratu ditu (aurreko legegaldian baino bi gehiago), eta baita 87ko Udal hauteskundeetan baino 616 botu gehiago lortu ere. Bigarren indarra, HB: 2.650 botu (87an baino 361 gutxiago), eta sei zinegotzi (aurreko legegaldian baino bat gutxiago). Hirugarren alderdia, EA: 1.084 botu (87an baino 481 gutxiago) eta bi zinegotzi (bat galdu du). PSOEk, 742 boturekin (87an baino 11 gutxiago), zinegotzi bakarrari eusten dio. EEk ere, 436 boturekin (295 galdu ditu), zinegotzi bakarrari eutsi dio. Eta EMK-LKIk, azkenik, nahiz eta 338rekin 87ko marka 4 botutan gainditu, ez du zinegotzirik lortu.


✓ Batzar Nagusietarako HB


Udaletxerako zerrendarik hautatuena EAJrena izan badugu, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako batzarkide edo junteroak aukeratzekoan kontuak dexente aldatu dira. Kasu honetan, bergarrek HBko zerrendari eman diote botu gehien, 2732 (Udaletxerako baino 82 gehiago, hain zuzen). EAK ere 211 botu irabazi ditu bozketa batetik bestera (Udaletxerako 1.084, Batzar Nagusietarako 1.295); PSOEk ere Batzar Nagusietarako 40 botu gehiago lortu ditu Udaletxerako baino (742-782); eta EEk ere 30 irabazi ditu Batzar Nagusietarako bozketan (436-466). Gauza kuriozkoa: Udaletxerako bozketatik Batzar Nagusietarakora atzerakada izan duen alderdi bakarra EAJ izan dugu; bidean 280 botu gelditu zaizkio. EMK-LKIk ez du zerrendarik aurkeztu.

Bi bergarar Batzar Nagusietan

Igandeko emaitzen ondoren, aipagarria da bi bergarar izango ditugula Gipuzkoako Batzar Nagusietan: Jose Luis Elkorro eta Victoriano Gallastegi, hain zuzen ere.

Azpimarragarria Jose Luis Elkororen kasua; Bergaran boto gehien jaso dituen Alkategaia ez izan arren, HBk Batzar Nagusietarako zerrendaburu aurkeztu eta bera izan dugu nagusi, 75.734 boturekin, Imanol Murua eta Eli Galdosen aurretik.





Victoriano Gallastegik Alkatetzarako botu gehien

2.801 boturekin, Victoriano Gallastegi izan genuen Alkatetzarako botu gehien jaso zituen zerrendaburua. 50 urte, *Biltokiko* gerentea, Blanca Ruiz de Eguinorekin ezkondua, hiru seme-alaba ditu: Sonia, Igor eta Maite. Bere zaletasunak badu izenik: Kirola. Gaztetan futbolaria izana, Bergara, Mondra, Azkoien eta Mirandes taldeetan jardun zuen. Horrez gain, mendia eta itsasoa atsegin ditu; baita arrantzan egitea ere. 1983tik zinegotzi, duela sei urte afiliatu zen Eusko Alderdi Jeltzalean.

Zinegotziak banan-banan



Jabier Gabilondo
49 urte




Luis Abajo
46 urte



Xabier Gallastegi
30 urte




Koldo Perelra
33 urte



Andoni Larrañaga
28 urte



Carlos Arrondo
49 urte




Jose Luis Elkoro
56 urte



Anaje Narbalza
30 urte




Aitor Aginagalde
30 urte



Jesus M. Garitano
44 urte



Xabier Latorre
34 urte



Jose Luis Irazabal
50 urte



Juan Mari Garitano
49 urte



Kontxi Irizar
43 urte




Jabler Zendola
46 urte



Albaro Esparza
38 urte





Erdikaldean...

Ez dago zalantzarik: Eusko Alderdi Jeltzaleak kaletarren botuegatik lortu du Alkatetzarako lehenengo zerrenda izatea. Beheko koadroan begiratu gero, garbi ikusiko duzue Seminarioan jarritako mahaietan bakarrik, 316 botoko aldea atera diola Herri Batasunari. Kontutan hartuz emaitza orokorretan 151 botoko diferentzia egon dela...



Auzoetan...

Eta kaletarrek Eusko Alderdi Jeltzalearen alde jo badute, auzoetan zeharo aldatu da kontua. Matxiategi, San Lorenzo, Ibarra eta Osintxuko mahaietan Herri Batasunak lortu du botu kopuru haundiena; lau gune hauen artean, 210 botoko aldea atera dio Eusko Alderdi Jeltzaleari.

Mahairik mahi

	EAJ		HB		EA		PSOE		EE		EMK		IU		PP	
	Udala	B.N.	Udala	B.N.	Udala	B.N.	Udala	B.N.	Udala	B.N.	Udala	B.N.	Udala	B.N.	Udala	B.N.
Erdialde	1319	1176	1003	1034	536	649	250	258	180	200	140	-	-	27	-	46
Matxiategi	410	367	428	447	176	201	200	214	69	75	66	-	-	4	-	17
S. Lorenzo	305	273	340	354	107	120	67	70	61	63	36	-	-	4	-	6
Martoko	418	366	373	388	127	166	173	185	88	92	74	-	-	24	-	13
Ibarra	214	196	316	317	93	112	23	26	23	20	15	-	-	1	-	3
Osintxu	135	131	190	192	45	47	29	29	15	16	7	-	-	1	-	-
GUZTIRA	2801	2521	2650	2732	1084	1295	742	782	436	466	338	-	-	61	-	85

Hurrengo Alkatea noiz eta nola

Ekainaren 15ean egingo den legealdi berriko lehenengo plenoan erabakiko da nor izango den Bergarako hurrengo Alkatea.

Lehenengo bozketan, beharrezkoa izango da gehiengo absolutua lortzea; Bergarako Udalaren kasuan, bederatzi boto (17 zinegotzi bait dira)

Baldin eta inork ez badu kopuru hori eskuratzen, automatikoki boto gehien lortu dituen zerrendaburua izendatuko dute Alkate.

Geroarte, Addio!

Legealdi berriarekin batera, faltan somatuko ditugu aurpegi ezagun batzuk Udalean.

Orainarte lanean jardun duten 9 zinegotzi joango zaizkigu, hain zuzen: HBko Jose Luis Loidi, Pili Unamuno, Luis mari Alberdi; EAJko Imanol Bolinaga eta Gregorio Muruamendiaraz; EAKo Felix Unamuno, Alvaro Gallastegi eta Juan Garitano; eta baita EEko Antonio Herzog.

Guztiei ere eskerrak herriaren alde egindako lanagatik!

□ Eusko Alkartasuna

"Bi datu aipatuko genituzke. Alde batetik abstentzio altua, batez ere gaztediarena. Horrek kalte egin digu, nahiz eta gu gazteen problematikaz kezkatuta egon oraingoan ez dugulako euren botoa eskuratu. Bestalde, galdu ditugun botoak ez dira gure jarraitzaileenak izan (hauen tinkotasuna nabaria da), baizik eta beste batzurenak, azkenengo legealdian Udalak funtzionatu ez duela ikusita, boto *baliogarria* eman bait diote EAJri".

□ PSE-PSOE

"Lehenik eta behin, emaitzak eskuan, balorazio positiboa egiten dugu, 87ko hauteskondeekin konparatuz 10 boto besterik ez ditugulako galdu, eta beraz, antzera xamar mantentzen gara Bergaran. Abstentzioa txikiagoa izan balitz emaitza hobekia lortuko genituzkeen".

□ Eusko Alderdi Jeltzalea

"Duela zortzi urte EAJk Bergarako Udala eskuratu zue nean lan ugari eta proiektu asko eramane zituen aurrera, nahiz eta beste batzuk egin gabe gelditu. 1987ko hauteskundeon ondoren HB eta EA elkartuta, eta bi urtez iraun zuten horrela. Gero banatu egin ziren, eta gehiengo minoritarioarekin geratu zenetik HBk jessio eskaxa eramane du; hori dela eta, herriak gure alderdiari eman dio konfidantza berriro".

□ EMK-LKI

"Pozik gaude jaso ditugun emaitzekin, gure botoak mantendu bait ditugu. Eskerrak gure zerrendari konfidantza eman dieten guztiari. Gindatxoa falta izan zaigu bakarrik: Zinegotzia".

□ Herri Batasuna

"Lau urteko lanaren ondoren gure asmoa botoetan gehiengoa lortzea zen. Herriko taldeekin kontsultatu ondoren programarik osatuena aurkeztu dugula pentsatzen dugu, baina ezkertiarrentzat garairik onenak ez direla dirudi. Itxura edukina baino hobeto saltzen da eta honetan maisuak izan dira irabazleak. Hor nonbait izango dira baita PPrene botoak. Alderantziz, J. L. Elkorok goragoko instituzioetarako, hau da Batzar Nagusietarako garaile ateratu da. Dena dela, tokatzen zaigun tokitik herriaren alde borrokatzen jarraituko dugu, PNVtik edo beste edozeinengandik etorrira ere herriarentzat egoki diren proposamenak beldurrik gabe bultzatuz".

□ Euskadiko Ezkerra

"Nahiz eta Euskal herri mailan emaitza txarrak jaso, pozik gaude Bergaran lortutakoarekin, azken finean gure helburua zinegotziari eustea bait zen. Ekainaren 7an Donostian egingo dugun Biltzar Tupian asko hitzegin behariko dugu etorkizuneko planteamentuei buruz. Dena den, zera aurreratu dezakegu, prest gaudela Jaurlaritzan martxan jarri dugun tripartitua Bergarako Udaletxera ekartzeko".

□ Izkutuan

Herritar askok izkutuan gorde nahi izaten du bere botoa.

Alderdi politikoei, ordea, eta agian euren jakinmina asetu nahian, hainbat trikimailu erabiltzen omen dituzte.

Etxeetara bidaltzen diren kartazalak poliki aztertuz gero, partidu bakoitzarenari berezitasunak aurkitzen zaizkio: kolorearen tonua dela, forma dela, edo... diferentzia haundiak ez baina garbi ikustekoak.

Izkutuko botoa bai, baina ez hainbeste.



□ Bi emakume

Aurki hasiko den legealdian, aurrekoan gertatu bezala, bi emakume zinegotzi izango ditugu Bergaran: HBko Anaje Narbaiza, eta EAKo Kontxi Irizar hain zuzen ere. Politika gizonen kontua izaten jarraitzen duela dirudi.

□ Adina gorabehera

Ekainaren 15ean osatuko den Udaltzatan, Eusko Alderdi Jeltzaleko Andoni Larrañaga izango dugu zinegotzi gazteena; 27 urte ditu.

Edadetuena, berriz, 56 urte dituen Herri Batasunako Jose Luis Elkorok.

□ Baliogabeak

Igandekoan, Udaletxerako jasotako botuen artean, 34 baliogabetzat jo ziren; Batzar nagusietarako bozketan, berriz, beste 60. Txuriz botzatzea ere erabaki zuten bergararren batzuk; Udaletxerako 48k, eta Batzar nagusietarako 82k.

□ Abstentzio altua

Igandeko hauteskundeetan, 12.662 bergararrek izan zuten botua emateko aukera. Guztiak, ordea, ez zuten eskubide hori erabili. Udaletxerako egindako bozketan, 8.134 boto jaso ziren; abstentzioa, beraz, %35,78koa izan genuen. Batzar Nagusietarako, berriz, 8.084 boto eman ziren. Abstentzioa, %36,17koa.

1991ko hauteskunde hauetan, beraz, aurrekoetan baino bergarar gutxiago hurbildu zen mahaietara.

□ Laugarren Alkatea

Seguruenik, EAJko Victoriano Gallastegi, Bergaran, gerra ostean, hauteskunde demokratikoetan aukeraturako laugarren Alkatea izango dugu. Lehenengoa EAJko Jose Antonio Zabala izan zen. Bigarrena, EAJko Imanol Bolinaga. Eta bukatu berri den hirugarren legealdian, berriz, HBko Jose Luis Elkorok bete du lan hori.

Espero zenituen emaitzak izan al dira Bergarako Hauteskundeetan?




Izaskun Labaien
(Aritzetako Zuzendaria)

Nik uste nuen oraingoan ere HBk aterako zuela, eta bestela EAK, zatiketaren ondoren Gipuzkoan nagusi zelako. Ez nuen pentsatzen EAJk irabaziko zuenik.




Angel Aperribai
(Jubilatuetakoa Zuzendari-ordea)
Normala iruditu zait, Bergaran Jeltzale asko ere badagoelako. HBk igual gehiago espero zuen, baina nik ez dakit zer gertatu den.




Xabier Larrañaga
(Institutuko Zuzendaria)

Ez nuen uste emaitza hauek izango genituenik, baizik eta beste batzuk. Nik pentsatzen nuen HBk jarraituko zuela aurrera lehen indar bezala, baina...



Felipe Altuna
(Elorregiko auzo-alkatea)

Nik espero nuen hala gertatzea. EAJ eta EA paktuak egiten hasi direnez, eta lehen ere elkarrekin ibilitakoak direnez, EAko jende asko EAJra pasako zela uste nuen.



Andoni Larrañaga
(Pol-Poleko presidentea)

Emaitzak nahiko normalak izan direla uste dut, ez da ustekabeko haundirik egon. Dena den, ez nuen uste EAk hainbeste galduko zuenik.



Nerea Alzelai
(Udal Euskaltegiko Zuzendaria)

Neretzat ustekabea izan da. Ez nuen uste kontuak hainbeste aldatuko zirenik. Beti egoten dira gorabeherak, baina... nik HBk irabaziko zuela espero nuen.

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero 2, Behea
Tfnoa: 76 43 07

GANBARA
Berezitasunak:
Pintxoak eta
Kafea kremarekin.
Irala z/g Tfnoa: 76 55 75

**T
B
E
R
N
A**

AE **ELKORO**
ANTENAK



. TB Satelite bidez
. Telebanaketa

ARRASATE **Tfnoa: 79 18 86**

Ezinbesteko Alkate aldaketa

	1983	1987	1991
EAJ	3.935	2.350	2.801
HB	1.993	3.011	2.650
EA	-	1.565	1.084
PSOE	874	752	742
EE	698	731	436
Besteak	459	382	338
Botoak	7.959	8.791	8.51
Zentsoa	12.078	12.376	12.662

Azken hauteskundeetako emaitzon zergatia miatuko badugu, hona zenbait giltza eta maratila:

- Herritarrek gogotan bide dute 1983tik 1987ra bitartean Imanol Bolinagak eta EAJ-PNVren beste zortzi zinegotzik izandako nagusitasuna eta egindako itxurazko jestioa.
- PNVren zatiketak eta Jose Luis Elkororen fama historiakoak HBri eman zioten alkatetza 1987an, baina azken lau urteotan HBren jestioa Bergaraz kanpoko interes eta estrategiei lotuegia egon ote den susmoa izan du hainbat bergarrek.
- 1987ko hauteskundeen osteko bi urteetan EA HBri lotu zitzaion udalean eta horrelakoak ez dira erraz ahazten.
- Victoriano Gallastegik, azken zortzi urteotan zinegotzi izan arren, ez du alferraldirik izan etxez etxe herrikideen aurrean bere burua apal asko aurkezteko.
- Guzti hau gertatu da gainerako Euskal herrian HBk eta EAK beherantzako joera bizi duten unean eta EAJ-PNVk, aldiz, gorantzakoa.
- Horrez gainera, begi bistakoa da 1983, 1987 eta 1991an PNV eta EAren botuen batuketak kopuru beretsua dela (3.900 inguru).
- EEk beherantza egin du nabarmen PSOEn mesedetan, dirudienez.
- HBk, oraindik ere, 600 boto inguru ditu "bereak" ez direnak, Jose Luis Elkororenak baizik.

Amatiño

Hurrengo egunaren irakurketa

Hauteskundeak amaitu berri ditugula datu hotz eta esanguratsuen irakurketa egiteko ordua iritsi da. Esperantzak zituenak hauek errealitatearekin konparatzeko eta beldur ikaragarri janda zegoena horren arrazoinak aztertzeko unera iritsi gara.

Bergarako ondorioak ikusirik lehenengo eta behin honoko konklusioak ateratzea behar beharrezkoa dela deritzot, hots, HBk alkatetza galdu duela, EAJk ehun eta berrogei ta hamar boto gehiago lortu bait ditu udaletxerako bozketan. Bigarrena berriz, HB Foru Aldundirako bozketan boto gehien lortu dituen indar politikoa dela, EAJk baino berrehun eta piku boto gehiago lortu ditu eta.

Esplikazioak -aurkitu nahi izan ezker, noski- beste alderdien portaeran bilatu beharko ditugu. Ikus dezagun, adibidez, Foru Aldundirako bozketan PPK ere botoak lortu dituela, udaletxerakoan berriz alderdi hau aurkezten ez denez boto hoiek -portzentai haundi batean behintzat- EAJko zerrenda bultzatu egin dutela. Har dezagun kontuan ere EAKo udaletxerako zerrendak Foru Aldundikoak baino berrehun boto gutxiago lortu dituela. Pentsa genezake, bada, kasu honetan EAKo boto hoiek udaletxerakoan EAJri prestatu diotela laguntza eta Foru Aldundirakoan Imanol Murua aukeratu dutela aldun nagusi.

Ondorioak ateratzean ezin ahaztu EMK-LKIkoe lortu dituzten 338 botoak. Kopuru hortatik ere joan baitira baten batzuk HBko zerrendak bultzatzera Jose Luis Elkor aldun nagusia izan dadin.

Ez dira hauek behin behineko konklusioak, ez alajaina! baina bai hauteskunde hauen ezaugarri nagusi hoiien esplikazio posible bat. Besterik balego ongi hartua legoke ere. Bai horixe!

Azkenik aipagarria da EE eta EMK-LKiren arteko diferentzia txikia. Azken udal hauteskundeetatik hona EMK-LKIkoe lau boto irabazi dituzten bitartean EEkoek ia hirurehun galdu, horrela indar biak arriskutsuki -EEkoentzat behintzat- hurbildu direlarik. Zinegotzia EEkoek lortu dute, juxtu, juxtu, eta gutxi faltatu izan zaie EMK-LKIkoei eura lortzeko. Horixe da diferentzia, eta ez da makala.

Martin Garitano



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41
BERGARA



School of English

Ibargarai 31, BERGARA

**Ingleseko ikastaro intentsiboak
haur eta nagusientzat.**

Egunean bi ordu t' erdi edo hiru, goiz edo atsaldez.
Deitu asteleheneetik ostiralera 10etatik 12.30etara

76 03 53 Tfno.ra

Galderak egiteko aukera

Hemendik aurrera orrialde honetan atal berri bati emango diogu hasiera. Bertan irakurleok egiten dizkiguzuen galderak erantzuten saiatuko gara. Egizkiguzu zuk galderak, osasun, inpuesto, lege, edo etxe nahiz kotxearen inguruan, edo... halako mantxa nola kentzen den edo... lagunarekin izan duzun diskusioan arrazoiak nork duen edo... nahi duzuna. Zuk galdetu, kartaz zein telefonoz, eta gu ahaleginduko gara lehenbailehen erantzun egokia ematen.

9. Orain modan jarri da xaboi ekologikoa. Zer ez du horrek besteek dutena? Hala ere, ondo garbitzen du? Ala engainua da?

Xaboi ekologikoak deitutako horiek fosfatoz eginak izan beharrean, beste osagai

batzurekin eginak dira. Garbitu fosfatodunen antzera garbitzen dute baina kontaminazioaren arazoa ez dute konpontzen. Etxeetako urak erreketara botatzen diren bitartean, kontaminaziorik ez da faltako gainontzeko osagaiak ere kontaminatzen dute eta.

Osagai bat kendu dugu baina, hala ere, kontaminazioak hor jarraitzen du.

(Informazioa: KIUB)

10. Etxea errentan daukat eta bainua konpondu nahi dut baina jabeak ez dit uzten. Zer egin dezaket?

Egin nahi dituzun obrak beharrezkoak direla demostratu beharra dago eta ez egiteak oker larriak sortzen dituela. Horretarako, perito edo aparejadore baten diktamena behar duzu eta Sanidadeko medikuak informe bat egin diezazula obrak egiteko premia azalduaz. Guzti hori Bailarako Juezari bidali eta harek hartzen duen erabakia derrigorrez bete beharrekoa izango da.

Erabakia obrak egitearen



aldekoa izanez gero, hilabete izango zenuke hasteko eta hiru hilabete amaitzeko.

(Informazioa: KIUB)

11. Bergaran alfabetatugabe asko dago?

Ezin da esan proportziorik analfabeto asko dagoenik. Gutxi gorabehera Bilbon beste: mila laguneko 16.

Bailaran, Arrasaten zertxobait gehiago dira: milako 19,4. Antzuolan, ordea, Bergarako erdiak baino ez, mila laguneko.

(Informazioa: EUSTAT)

12. Modelo izateko ikasketak berezirik behar da? Non ikas daiteke?

Badaude eskolak modelotarako ikasketak eskaintzen dituztenak. Ikasketak 6 hilabetekoak izaten dira eta amaieran diploma bat ematen dute. Sarrera azterketa egiteko ez da titulorik eskatzen eta bertan gorpuzkera (1,70 mko altura behar da), nortasuna eta ezagupenak neurtzen dira. Barzelonan badago eskola ofizial bat, eta Madrilen bi, pribatuak.

(Informazioa: Guía escolar VOX 1990)

Beheko

Taberna

MENESTRA ETA KONEJOA
DIRA GURE BEREZITASUNAK
ANGIOZAR Tfna: 76 55 74

ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

ETXE- -AUNDI

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

ELKAR

Harruriaga 1, Behea Tfnoa: 76 58 16 BERGARA

Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak.

✓ **Bergararrak zorretan?**

Harrituta gelditu ginen astelehenean, San Martin plazan Frac beltzaz jantzitako kobratzailea agertu zenean. Bergararren bat zorretan ote zegoen edo...

Gero jakin ahal izan genuenez ez zetorren asmo horrekin, Bilbon sortu berri duten enpresaren publicitate egitera baizik.

Bere telefonoa utzi zigun; norbaitek behar izanez gero, jo (94) 4235393ra.

Nahiago genuke, dena den, halako pertsonaia bitxirik gure kaleetan gehiago ez ikustea, ez bait litzateke seinale ona izango, ez horixe!



Zertan dihardute ba?

JUANTXO MADARIAGA



41 urte, Madrilen jaioa, UNEDeko Zuzendari izendatu berri dute.

Geografia eta Historian doktoratua, Ofiatin bizi da. UNEDeko fundatzaileetarikoa bat dugu, eta 1976tik bertan lanean dihardu.

ANDRES OSA



1940an Elorregi auzoko Sakona baserrian jaioa, igandean Gernikan egingo den *Ibilaldia* koordinatzen jardun du. Gernikako Sebero Altube ikastolako zuzendaria, Egin eta Euskadi Irratian herri kiroletako berriemailea dugu.

✓ **1941ean jaioak**

1941. urtean jaiotako hirurogei bergarar inguru bildu ziren larunbat iluntzean, lagunarteko afaria egin asmoz.

Monja Zaharretan meza entzun eta gero, Antxoni jatexera joan ziren, bapo afaltzera.

Kontua ez zen hor amaitu, eta badirudi bateron batzuk gauerdia ondo pasatxo heldu zirela etxera...



✓ **HABEkoak Funtzioan**

Pasa den ostiralean, hirurogeitahiru bergarar joan zitzaizkigun ETBko Funtzioa saiora, HABEk antolatutako bidaian. Horieta berrogeitahamasei Euskaltegiko irakasle eta irakasleak ziren, eta beste zazpirak, berriz, Piter eta Xabierren lana hurbiletik ezagutu nahi izan zuten lagunak. Jone Telleriak *Ohera* lehiaketan parte hartzeko aukera ere izan zuen, nahiz eta saririk lortu ez. Direnak direla, parreak ugari!




BERROYA, E. A.

INPRENTA

OFFSET + TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2
Tfnoa: 76 00 01

BERGARA



Hau dok barreguria

Astelenian, elekziño bixamonian sartu naiz ta-bernara eta Fakundok esa-ten dost.

- Hi enterau haiz hauta- gai batek bere burua bota dabela?

- Zeiñek? -preguntau notsan ikaratuta.

- Zeiñek esaten dok? - kontestau zostan serixo se- rixo-. Deskuidatzen bahaiz danak. Nik ondo ikusten juat zuriz botatzia edo abs- tenitzia, baiña bere burua bota...

Auzo bateko jaiak zien eta Epelarre pandero-joliak



han ziharduan pandera jo eta jo, trikitilarixai lagun-

duaz. Andra bat ei zeukan begira begira, urtetan aurre- ra zoiana baiña umore one- kua. Atsenaldi baten urrera- tu ei jakon andrioi eta esan ei zotsan fresko-fresko:

-Zu Epelarre e, zu zeure denporan makiña bat narru jotakua izango zara.

-Bai -kontestau ei zotsan Epelarrek suabe suabe- eta gehixenetan kobrouta gai- nera.

Ba ei zan fabrika horre- tan erderaz tautik pe etxeki- xen andra mondrauetar bat, garbittasun lanetan ibiltzen zana. Behin bi erdeldunen arteko demanda zaratatsu bat entzutia tokau jakon pa- rian. Gero hola kontatzen ei eban ikusittakoa:

- Harek esaten zotsan esatekuak... Jeseus!

- Zer esaten zotsan ba?

-Karboon!, Karboon!, ikatza harrapauko eban itxuria ero...

J. M. Elexpuru

1918ko Udal Hauteskundeak

1918ko urtarrilaren 2an, ohizko bilkura egiten da Udaletxeko areto nagusian. Idazkariak, bi urtetako agintealdia bete duten zinegotzien kentzearen berri ematen du, baita, beroien ordeztatu hautatu berrien sartzearen berri ere. Beharrezko oharrak egin eta bozketa egin ondoren Udalbatza berria izendatzen da, ondoko era honetan.

Udal Batza

- Alkatea: Claudio Arteche
1. alkateordea: Jose Oruesagasti
2. alkateordea: Federiko Zarauz
3. alkateordea: Domingo Aiastui

Joera Politikoa

- Erregezaletza tradiziozalea
" "
" "
" "

Zinegotziak:

Juan de Bengoa
Carlos Otaduy
Jose Galparsoro
Marzelino Arregi

" "
" "
" "
" "

Markos Mugika
Pedro Zabala Garai
Luis Berroya Ayala
Liborio Muruamendiaraz

Nazionalista
"
"
"

Eustasio Telleriarte

Errepublikar liberala

Idazkaria: Frantzisko Oyarbide


Iturria: "Bergara". Antonio Urzelai

POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



KONDE
PANADEROKUA
Burdiñate 1
BERGARA

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68



Mendiko motorren probak debekatu

Astelehenean egin zen legealdiko azken plenoan, Bergarako zelaietan mendiko motorren probak debekatzea erabaki zen. Zinegotzi guztiak bat etorri ziren erabakia hartzerakoan, Anaje Narbaiza HBko zinegotziak argi utzi zuen arren, debekua behin behinekoa zela, eta indarrean egongo zela, Gipuzkoako Diputazioak araudi berria ezarri arte. Gogoratu, duela aste gutxi, mendiko motorren X. Trabiesa jokatu zela Bergaran, ekologisten protestak sortarazi zituelarik

Eskolarteko II. Olinpiadak

OHoko 5., 6., eta 7. mailatan ari diren 1000 neska-mutiko bildu ziren joan den larunbatean Arrasateko kiroldegian jokatu ziren Deba Garaiko Eskola arteko II. Olinpiadetan. Gustora igaro zuten eguna gure hurrek, ezohizko jokuak praktikatzen: herri kirolak, skata, rugbya, eskalada, arku tiraketa, etab. Larunbata lagunartean igaro ondoren, pozik itzuli ziren etxera.



Futbito txapelketako finalak

Eskubaloi eta saskibaloiko txapelketak bukatu direnean, futbitoko finalak geratzen dira jokatzeko oraindik, kiroldegian.

Urte osoa eman duen Futbito Txapelketari asteburu honetan emango zaio amaiera. 22 taldetatik onenek (C.B. Bergara, Kriston Potruak, Eusebio II eta Infernukua) larunbatean eta igandean neurtuko dituzte indarrak elkarren artean. Larunbatean finalerdiak jokatu dira: eguerdiko ordubatean, Eusebio II-Infernukua eta arratsaldeko 5,30etan C.D. Bergara-Kriston Potruak. Igandean, arratsaldeko 5,30etan, 3. eta 4. posturako norgehiagokak jokatu dira eta finala, berriz, ordubete beranduago.

Astelehenean, bestalde, kiroldegia itxi egingo da 10 egunez, kantxa berrizteko. Poliuretanoaren ordeaz, egurra botako da eta kantxa inguruan barandillak jarriko dira. Denetara 14 milioiko kostua.

❑ Mendiko bizikleta

Larunbatean, Toki Ederren, jaietako ospakizunen barruan, gazteentzako mendiko bizikleten proba jokatu da goizeko 11etan.

❑ Etxaniz eta Galarza

Jokin Etxaniz eta Ladis Galarza modan ditugu azken boladan. Pazkuetan jokatuak partiduetan, bikote hau izan zen txalo gehien jaso zituena. Larunbat arratsaldean, Bergaran berriz ikusiko ditugu, Retegi II.a eta Errastiren aurka.

MAKAILO

BAKALAU **ETXEA**
KAZUELAK
GERTATZEZ DITUGU
IBARGARAI 15

GIARTZU

(M. Isabel Hurlado)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupeazioa
Errekupeagailu elektrikoa
Korronte kapazitiboak
Bonif Laskurain 3, Etxabea Tfnoa: 76 35 71 BERGARA

Estetika Tratamenduak
Larruazal garbiketak
Kosmetika Espezializatua



Makinatxo bat bergarrek izan dute Don Elias Azpiazu maisu. 40 urtez jardun zuen lanean eta 1950ean omenaldi bat eskaini zitzaion. Hemen, erretratu honetan, Juzgauko etxeko eskilaratan, bere ikasle izandako lagun eta familiakoekin agertzen da.

Hona hemen zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

- 1. ilaran:** Felix Jauregi, Juan Bautista Mendieta, Luis Ezenarro, Gaspar Ezenarro, Julio Otadui (Arrasateko alkate zena), Elias Azpiazu, Antonio Ezenarro, ezezaguna, Berastegiko alkatea eta Fulgencio Cabia.
- 2. ilaran:** Felipe Vitoria, Juan Altuna, Eusebio Zubia, Juanito Altuna, Juan Etxebarria, Juan Mari Zaitegi, Joxe Gorosabel, Jesus Azpiazu, Angel Galdos eta Leandro Agirre.
- 3. ilaran:** Francisco Azpiazu, ezezaguna, Juan Mari Sanpedro, Andres Azpiazu eta Eustasio Markaide.
- 4. ilaran:** Juan Mari Azpiazu, Jose Iturbe, Estanis Ezenarro, Ignazio Zabala, Jose Mari Larrea, bere atzean Jose Martinez de Ubago, eta Benito Urkiola.
- 5. ilaran:** ezezaguna, Nikasio Gonzalez, Isidro Markaide, Santos markaide, Lorenzo Sanpedro eta ezezaguna.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Bixente Jauregi*

BERGARA 76 32 02

ELGOIBAR 74 02 36

ANTZUOLA 78 70 30

THE KENSINGTON SCHOOLS OF ENGLISH

Udako ikastaroak. Izen emateko epea zabalik.

Baldintza ezin hobek 1991-92 ikasturterako.



Gipuzkoako Hizkuntz Ikastegiaren Elkarteak.



CAMBRIDGE Unibertsitateko P.E.T. azterketen antolatzaileak.



ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Iri- zar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisu salgai edo alo- kairuan. Polita eta amue- blatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera.
- Pisu behar dut alki- lerrean. Tfnoa: 764255.
- Pisu behar dut alo- kairuan. 765837.
- Pertsona bat behar du- gu Mizpildin pisua osatze- ko. 765837.
- Pisu salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisu alkilatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.

- Pisu salgai Olan, konpondua eta amuebla- tua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak sal- gai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Pisu salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserria alokatu nahi dugu Bergaran.763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairu- an. 764735.

LANA

- Eraikuntza materialen biltegi baterako errepre- sentantea behar da. Deitu lan orduetan: 760141

DENETARIK

- Ihauterietan galdu- tako argazki kamara ba- daukazu. Deitu: 763270. Sarituko da.
- IPUIN dendaren albo- ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Soinu bat salgai. Deitu 764195era.
- 28 urteko pinudia sal- gai. Terreno eta guzti.76- 1201.
- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai.Deitu: 862071era.

- Salgai ski eta bizi- kleta eramangailua; bi lo- karri, eta erretenarekin 762852.
- Egoera onean dagoen R-6 GTL bat erosiko nuke. 770940 (lanorduetan).
- Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.
- *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9re- tatik aurrera.
- Kolore biziko MBK mendiko-bizikleta berri- berria salgai. 765580.
- Ford Fiesta SS-K sal- gai. 765869

Hildakoak

Jose Antonio Moñux Fernandez de Jauregi
59 urte, maiatzak 23an
Modesto Larrañaga Agirrezabal
80 urte, maiatzak 23 an
Felisa Ondarza Alberdi
79 urte, maiatzak 28an

BERRIGARA

Eskatu eta etxean

76 03 97

ALDAI

Harategia

Espaloia 12, Tfnoa: 76 33 35 BERGARA

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

egizabal oinetakoak
boltsak

Elisabete

gizonezkoen jantzi denda

Bidekurutzeta 13

Tfnoa: 76 12 28

BERGARA

Husqvarna
Baso eta lorategietan.

Husqvarna
HARTU, ESERI
ETA BELARRA MOZTU.



8 H.P.
82 zm.ko kortea



SEGAMAKINETAN
ESPEZIALISTAK

ESKAINITZA BEREZIA!



Etorri eta ikusi, Brunet Merkataldenda, Ozaeta 11-13 an gaude